

# Euskal kulturaren bizkunderako politika

**E**USKO Jaularitzako Kultura Saileko 1992rako aurrekontuek txispak sortu zituzten batez ere euskal kulturaren munduan. Bertatik sortu zen «Kultur Kezka» izeneko ekintza, non hainbat sektore eta talde kulturaletako lagunak elkartu baitziren.

Fenomeno berria eta interesgarria iruditu zitzaidan ez bakarrik kulturako mundua politika jakin baten aurka asaldatu zelako; eta bai, eta bereziki kulturako aurrekontuak orokorki eztabaidatzeko gauza izan zelako. Sarriegi ibili izan da euskal kulturako talde bakoitza Administrazio publikoen aurrean eske eta negarrez. Oraingoan elkaturik, kultur politika globalaren irizpideak eta horren ondoriozko aurrekontuen banaketa orohar eztabaidatzeko gauza izan da kulturako jendea.

Momentuko ekintza konkreturako elkargunea koordinakunde iraunkor bihurtzeko asmoa eta erabakia hartu zuen «Kultur Kezka». Ez dakit horrela izan behar duen. Baina horrelako ekintzaren balio handiena ez da hainbeste Agintariak erabakitako aurrekontuen kontra protesta egitean, eta bai hurrengo aurrekontuak egiterakoan sailaren hitza eta eragina erakustean. Bide honetatik txalogarria iruditu zait Iparraldeko Pizkundera erakundeak prestatariko «Euskal Buxeta», non euskal kulturako sail bakoitzak bere lerroa baitu eta bere diru-kopuruaren esleipena, Departamentuari eta Udalei aurkezteko.


Hortik egin behar dira ahaleginak. Hasieran Kultur Kezka izena emandako batzuek gero ezabatzea eskatu zuten; arrazoiak bat zera izan zen: aurrekontuak erabakita daudenez, «Kultur Kezka»ren iraupenak ez zuela zentzurik. Guztiz kontrakoa esango nuke nik. Iraunkorra izatean eta hurrengo aurrekontuei bere irizpideekin eta proposamenekin aurrea hartzean duela horrek egitekorik handiena.

## Euskal kultur proiektua

«Proiektu kulturala»ren ideia ez da berria Euskal Herrian. Baina azken urteotan alde askotatik aldarrikatu izan da horren premia: proiektu handi eta global bat, euskal kulturagintzako indarrak suspertu eta mugimendu bizian helburu handirako bateratuko dituen, Euskal Herrian kultur bizkunderari begira.

Azken hamar-hamabi urteotan zera polikoa nagusitu izan da beste guztien gainetik, eta horrek hartu izan du gure gizartean parterik nabarmenena, bestelako sektoretako lanak eta planteamenduak, eta bereziki kulturalak, sarritan itotzeraino. Horren adierazgarri dira komunikabideetako orrialdiak eta emanaldiak. Kultur alorrak alor politikoaren menpean edo horren baldintzapean bizi izan behar du.

Kulturak, ordea, autonomo izan behar du agintari eta alderdi politikoeiko; autonomia



## Paulo Agirrebaltzategi

Idazlea  
Donostia

hori erreibindikatu behar da etengabe, politikariak horretaz baliatzeko eta hori manipulatzeko eduki dezaketen joera eta pretentsio guztien aurrean.

Euskal Herriaren berreraikuntzarako autogobernua eta agintaritzaren politikoa behar-beharrezkoak badira ere -eta hori kanalizatzeko daude alderdi eta erakunde politikoak-, Herri nonen benetako nortasuna bere kulturagintzan gorpuztu eta sendotuko da. Horregatik kultur alorrak bere funtsezko lekua behar du Euskal Herriaren berreraikuntza-politika egokian; eta horrek euskal kulturaren estrategia propioa lantzea eskatzen du.

Euskal Herriaren nazio-berreraikuntzak, kultur berbizkunderak eta hizkuntz berreskurapenak batera joan behar dute.

## Kultura eta hizkuntza

Euskal kulturaren proiektuaz mintzatzean beharrezkoa da gogoeta berezia egitea hizkuntzari buruz. Euskararen egoera eta dinamika eta hemen bizi dugun hizkuntz gatazka kontuan edukita, «Jakin» aldizkariak editorial berezia argitaratu zuen, aurrekontu haiek zirela eta, kultur politika berria eskatuz. Honako hau zioen bertan: «Kulturaren dimentsio nagusietako bat izateaz gain, horren azpiko egituratzaila, horren azkenburuko adierazle eta horren funtsezko komunikatzaile» da hizkuntza.

Kultur sektore batzuetzat beren sorkuntza eta komunikazioaren funtsezko materia izango da hizkuntza bera: literaturan eta bertsolaritzan, bereziki. Beste sektore batzuetan hizkuntza da kultur sorkuntza eta komunikaziorako baliabiderik nagusienetakoa: antzerkian, zineman, kantan, adibidez. Baina arte plastikoetan eta zuzenean hizkuntzaz baliatzen ez diren kulturazko sorkuntza eta komunikazioetan

ere hizkuntza bera gertatzen azkenburuko adierazpen-erreferentzia. Ez dago kultura muturik; eta funtsean komunikazioa denez kultura, bereizteza da hizkuntzatik, hau delako giza komunikazio-mota guztien azkenburuko giltza.

Horregatik edozein kultur politikak eta estrategiak hizkuntzaren politika eta estrategia behar ditu ipini oinarri-oinarrian.

## Euskara eta euskal kultura

Euskal kultura ez dago ulertzerik euskararik gabe. Eta euskal kulturagintza, beraren sorkuntza eta komunikazio guztietan, euskal kulturagintza dela esan ahal izango dugu, euskara baldin badu bere azkenburuko erreferentzia, sorkuntzako eta komunikazioko materiatzat eta baliabidetzat zuzenean hizkuntza -Euskara- erabiltzen ez baldin badu ere. Euskal kulturari buruz orokorki esaten dugun honek, kultur obra eta manifestazio bakoitzarentzat balio du. Euskalgintza eta euskal kulturagintza asmo beraren bi aurpegiak besterik ez dira.

Kultur antropologiatik begiruta eta maila nolabait teorikoa hori esateak, konnotazio oso konkretuak eta biziak hartzen ditu gure Herri honetan, euskararen egoera soziala kontutan hartzean. Ez dago euskal kulturaren proiektu estrategikoa eta politika egokia konfiguratzetik euskararen berreskurapen osoaren politikarekin eta horretarako plangintza orokorrarekin batera ez baldin bada.

Alderantziz ere esan behar da, ordea: euskararen berreskurapen osoaren politika guztiz kamuts geratuko da euskal kultura osoaren sustapenerako politika orokorraren barruan ez baldin bada. Hizkuntza izateko «motibaziorik» sakonena bizitzako kultur adierazpenetan komunikaziorako baliabidetzat erabili ahal izatea da: norberaren kultur sorkuntza nahiz bestetatik hartzen den kultur eskaintza.

«Kultur Kezka»tik beren izena kentzeko arrazoiak prentsan zabaldu zituztenetako bat Felipe Juaristi izan zen. Maiatzaren 20ko «El Diario Vasco»n egindako azalpenetan «euskal kulturaren dagoen gezurrik handiena» agertu zigan: «Ez dagoela Euskal Herriko euskararik gabe. Euskal Herria egon ziteke euskararik gabe eta esperantoarekin. Nik euskara edozeinek bezala maite diat, baina nik ez diat justifikatuko ezer euskararen aitzakian. Hemen beti kultura eta euskara identifikatu izan dituk eta horrek ekarri dik mediokritate handia eta jende pilo bat bere poltsikurako lanean ari dena».

Hitz gutxitan gauza asko esan zituen Juaristik. Hemen kultura eta euskara inork identifikatu dituenik ez dakit; euskara eta kultura elkarren kontrakotzat jo dituen askotxo ezagutzen dut. Nik euskara eta kultura ez nituzke berdinduko; baina euskararekin zer ikusirik ez duen «euskal kultura» zer izan daitekeen ez dakit.